



## FUNTSEZKO ELKARTEAK

**Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan?** Gure proiektuak funtzionatu dezan, bezero batzuk beharko ditugu, diru sarrera bat eduki dezagun, hornitzaile batzuk ere beharko ditugu, noski, gure proiektuak aurrera joateko behar duen materialak, lehengaiak, osagaiak etab lortzeko.

**Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?** Beste gauza asko bezala, gure proiektua funtzesko elkarterik gabe ez zen gauzatuko baina esan behar da gure proiektua asko bultzatzen duten zerbait direla. Beste kontzeptu batzuek (baliabideak adibidez), gure proiektuari lagundu egiten diote, baina materialik gabe eta bezerorik gabe ez dago proiekturik gauzaterik. Beste hitz batzuetan, oso garrantzitsua da guretzat bezero eta material iturri on bat izatea, gure proiektua aurrera joan dadin.

Gure proiektuari dagokienez, Anderrek industria munduan esperientzia handia du eta oso jaioa da, orduan, materialak aukeratzekoan Anderrek duen iritziak pisu handia edukiko du.

Jokinek oso diseinu maila ona du, beharrezkoa gure produktuak ondo sortzeko; Anderrek, industria mailaz gain, oso material onak aukeratzeko (beste enpresetatik) eta Jokinek oso diseinu ona egiten du material hauekin gure produktuak sortzeko. Jokinek eta Anderrek elkarren artean konfiantza asko dutenez, askoetan beraien lana batera egiten dute, hori dela eta, proiektuaren sektore hau oso ondo hornituta dagoela esan daiteke.

Markelek behar den planifikazioan egiten du lan, matematikak asko gustatzen zaizkio eta ondo egiten du, orduan, beste enpresa askoek pertsona bat kontratatzen duten moduan, guk Markelen laguntzaz ematen dugu aurrera kontabilitadea.

Azkenik, Iratik eta Naroak, gaiari buruz asko dakite eta festa munduan asko dakite, hori dela eta, jende-aurrean arituko dira lanean eta ideia berriak ere sortu ahalko dituzte.

